

Antxo Eraikiz: Parte hartzeko prozesuaren txostena

Pasaiako Udala

2015eko ekaina



Pasaiako Udala

elhuyar 
Aholkularitza





0. Sarrera	3
1. Helburuak	4
1.1 Helburu nagusia	4
1.2 Helburu zehatzak	4
2. Prozesuaren eskema-laburpena	5
3. Planteamendu metodologikoa	6
4. Aurrelanak	7
4.1 Organo Mistoa	7
4.2 La Herrera Herrira	7
5. Garapena	9
5.1 Organo Mistoa	9
5.2 La Herrera Herrira	9
5.4 Topaguneak	9
5.5 Emaidza edo lortutakoa	11
6. Prozesua amaitu	12
7. Eranskinak	16
7.1 Lehen topaguneko akta	16
7.2 Bigarren topaguneko akta	34
7.3 Hirugarren topaguneko akta	41

Etorkizunean Pasai Antxon zenbait proiektu garrantzitsu daude aurreikusita. Eragozpenak eragingo badituzte ere, aukera berriak ere sortuko dira. Lan horiek egin aurretik, Pasaiako Udalak **aukera eman die antxotarrei** lan horiek sor ditzaketen egoera berrien inguruan hausnarketa egiteko eta iritzia emateko. Txosten honetan jaso ditu Elhuyar Aholkularitzak horretarako antolatutako parte hartzeko prozesuaren emaitzak.



Ondoren jaso ditugu prozesuaren hasieran planteatutako helburuak.

2.1. Prozesuaren helburu nagusia

Pasai Antxon abian diren edo/eta aurreikusita dauden proiektuak eta beharrak kontuan izanda, bertako bizilagunek barrutia nola berrantolatu lantzea, hirigintzaren ikuspegitik.

2.2. Helburu zehatzak

- Azken prozesutik hona egindakoaren berri ematea herritarrei, eta egin ez dena zergatik ez den egin azaltzea (arrazoiak eman).
- Aurreikusita edo abian diren hirigintza-proiektuen berri ematea antxotarrei: (topoarekin zer asmo dagoen, Luzuriaga proiektuaren egoera, frontoiak ematen dituen aukerak...).
- Dagoeneko eginda dagoen diagnostikoa aurkeztea, osatzea eta berrestea
- Barrutiaren egungo hirigintza-antolaketa aztertzea eta berria(k) proposatzea.
- Proposamenaren edo proposamenen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa lantzea.
- Antolaketa-proposamen bat baino gehiago egonez gero, haiek lehenestea.


2.3. Zeharkako helburuak

- Herritarrak subjektu aktibo izatea.
- Herritarren parte hartzeko aukerak zabalduz bizitza komunitarioa eta kultura politikoa politika publikoen zerbitzura jartzea, eta udal-arduradunek parte-hartzaileen nahiak, iritziak eta interesak jasotzea eta aintzat hartzea.
- Herritarren artean parte hartzeko kultura sustatzea.
- Herri-nortasuna sendotzea, herritarren arteko elkarren ezagutza eta elkarlana sustatuz.

Helburuez gain, honako lan-eskema ere proposatu zen:



2. Prozesuaren eskema-laburpena





3. Prozesuaren deskribapena: aurrelanak

Prozesuari ekiteko, zenbait aurrelan egin behar izan ziren, besteak beste:

Talde Eragilea osatu eta abian jarri

Talde Eragilea Udaleko hiru zinegotzik, Udaleko komunikazio-arduradunak eta Elhuyar Aholkularitzako bi teknikarik osatu zuten. Talde Eragileak herritarren prozesua antolatzeko bi bilera egin zituen fase honetan eta beste hiru prozesuan zehar. Aurrelanen fasean honakoak landu zituen:

- Proposamena aztertu eta egokitu.
- Prozesuren kronograma zehaztu.
- Erakusketaren edukia adostu
- Komunikazio Plana landu.
- Lehen topagunea prestatu.

Komunikazio Plana garatu

Herriarrei prozesuaren berri emateko eta parte hartzera gonbidatzeko zenbait ekintza garatu ziren:

- Inguruko komunikabideetara prentsa-oharrak bidali.
- Web-orrian prozesuaren inguruko informazioa eskegi eta proposamenak jasotzeko kanalak ireki.
- Azokaren balkoian pankartak jarri: erakusketaren berri emateko eta herritarren bilera bakoitzaren aurretik bileraren data gogorarazteko.
- Aurreko prozesuetan parte hartu zutenei e-mailak bidali eta bileretan parte hartu dutenei hurrengo bileraren aurretik sms-ak ere bidali zitzaizkien.





3. Prozesuaren deskribapena: aurrelanak

Erakusketa antolatu eta prestatu

Proiektuaren helburuetako bat zen herritarrei jakitera ematea Antxon abian diren edo aurreikusita dauden proiektu nagusiak. Horretarako erakusketa kanal egokia izango litzatekeela erabaki zen. Erakusketan, proiektu nagusien panelak jarri ziren:

- Topoaren lurrazpiratzea
- Luzuriaga 1. eta 2. faseak
- Molinao itsasadarra
- Luzuriaga eraikina...

Paneletan Antxon hirigintzarekin lotuta egin diren prozesuen ondorioak eta orduan planteatutako proiektuak zer egoeratan dauden ere jaso zen.





5. Prozesuaren deskribapena: garapena

Aurrelanean ondoren, herritarren bilerak egin ziren. Hiru saio izan ziren guztira eta horien datu nagusiak honakoak dira:

Herritarren lehen saioa

1. saioa

Eguna: 2015-03-25

Asistentzia: 12 lagun (3 ♀, 9 ♂)

Ordutegia: 19:00-21:15

Lekua: Antxoko ikastola

Landutakoa:

- Sarrera eta aurkezpenak
- Udal-arkitektoak aurreko prozesutik egin denaren berri eman eta aurreikusitako hirigintza-proiektuen eta asmoen berri eman
- Diagnostikoa osatu



2. saioa

Eguna: 2015-04-15

Asistentzia: 20 lagun (10 ♀, 10 ♂)

Ordutegia: 19:00-21:00

Lekua: Antxoko ikastola

Landutakoa:

- Lehenetsiko liratekeen proiektuak hautatu
- Etorkizuneko Antxoren printzipio edo oinarriak landu
- Printzipioak, beharrak, arazoak eta aukerak zerrendatu eta jokaleku posibleen aurrean proposamenak egin.





5. Prozesuaren deskribapena: garapena

3. saioa

Eguna: 2015-05-06

Asistentzia: 8 lagun (1 ♀, 7 ♂)

Ordutegia: 19:00-21:00

Lekua: Antxoko ikastola

Landutakoa:

- Aurreko saioan aipatutako gai/proposamen nagusien zehaztapena egin
- Ondorioak atera
- Hurrengo urratsak definitu eta segimendua egiteko modua landu
- Balorazioa egin





5. Prozesuaren emaitzak

Ondoren azalduko ditugu saioetako emaitzak:

Herritarren zalantzak eta kezak

Aurreikusita dauden proiektu nagusien aurkezpenaren ondoren, **deigarriena**, **zelantzak gustukoak** eta **bestelakoak** lantzeko eskatuta, honakoa adierazi zuten:

DEIGARRIA IRUDITU ZAIE	ZALANTZAK SORTU DITU	GUSTATU ZAIE	BESTERIK
Elizaren espazioa kolokan ez jartzea	Topoko obrak benetan egingo ote diren. Zenbat denbora iraungo duen obrak	Giroa	Bai. 3 saio oso gutxi dira. Gehiago behar dira. Ateratzen diren konklusioak eta lehentasunak gauzatzen badira, esan eta sozializatu. Bestela, zertarako partaidetza prozesuak?
Azken urteetan 45 miloi € Antxon gastatu izana. Proiektuak gauzatzeak horrenbesteko denbora suposatzea.	Luzuriagako bulegoek.	Frontoi berriaren proiektua	Etxeen altuerak herrira argia iristea oztopatzen dute.
La segunda fase de Luzuriaga	Non kokatu Azokaren diren erabilerak.	Informazioa eta gardentasuna	Non jarriko dira azokaren zerbitzuak, hobeto egokitutako eraikinen batean? (eskolen orubean?)
Proiektuak zenbat aldatzen diren. Obrak ez dira esan bezala egiten.	Proiektuen bideragarritasuna. Proiektuak sortzeko plangintza.		Lezoko intermodala egiten bada, ez dute zentzurik trenbideek plan partzialean.



5. Prozesuaren emaitzak

DEIGARRIA IRUDITU ZAIE	ZALANTZAK SORTU DITU	GUSTATU ZAIE	BESTERIK
<ul style="list-style-type: none"> Herritarra askok herria berritzea nahi izatea, sustriak galdu gabe. Arkitektoaren azalpenek gauzak hobeto ulertzen lagundu du. 	<ul style="list-style-type: none"> Parte-hartzaile gutxi izateainformazio gutxi ematearen ondorio izan daiteke. Baina gero, kalean asko hitz egiten da. 	<ul style="list-style-type: none"> Udalak herritarren iritzia garrantzia ematea. 	<ul style="list-style-type: none"> Proiektuen inguruko azalpenak konplikatu samarrak izan dira; denak ez gara adituak.
<ul style="list-style-type: none"> Hain epe luzeko proiektua zaharkitua geratzen da, denbora pasa ahala beste behar batzuk sortzen direlako. 	<ul style="list-style-type: none"> Ameslaria izan daiteke. Biaduktua kentzearen aldekoa naiz, eraikinei ez nieke ohore egingo, komunitatearen zerbitzura egon beharko lukete eta beraren beharrei erantzun. 	<ul style="list-style-type: none"> Gur galdetzea zer nahi dugun etorkizunean. Nahi dugun herrian lehentasunak adieraztea. 	<ul style="list-style-type: none"> Biterin kirol-anitzeko espazioa beharko genuke, Zumardia libre utzita. Molinaoko poligono industrialak birgaitu. Edozein erasketa edo hirigintzako proiekturen ondoren, ingurua urbanizatu beharra dago.
<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> Zenbateraino presion dezake Udalak topoa bezalako lanetan, gure interesak defendatzeko? 	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> Badiarekiko lotura errekuperatu nahi dugu
<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> Luzuriaga 2 egitean, non aparkatuko duten. 	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> Pasaia barruan barruti bakoitzak "berea" nahi du. Portuak eragin handia du horretan; barrutien arteko lotura galerazi egiten duelako. Motorak horretan lagundu egingo luke.



6. Prozesuaren emaitza

Herritarrek nahi duten Antxoren printzipioak

Hauexek dira parte-hartzaileek nahi duten etorkizuneko Antxoren printzipioak edo oinarriak:





Herritarrentzat lehentasunezkoak diren proiektuak

• Luzuriaga (II)
• Luzuriaga proiektu kulturala babestu eta aurrera segi.
• Topoa lurrazpiratu , gaineko azpiegitura (arkuak) bota eta egungo ibilbidea peatonalizatzea (IIII).
• Kultura eta sorkuntzarako guneak.
• Elizaren lokalak herritarrei ireki edota eliza tokiz mugitu eta erdigunea askatu.
• Aparkalekuaren gaia konpontzea; Antxoko erdialdea (Hamarretxeta, Oarso, Zumardia, etab.) herritarrek erabil dezaten lor dadin, erdialde hori herriaren bizitza bertebratzen duena izatea.
• Herritarren arteko elkarlana eta ardura, Udalarekin konpartituta.
• Emakumeentzako espazio handia eta erabilera anitzekoa, irisgarritasun egokia duena eta hainbat jardueratarako prestatua (esku-lanak, gimnasia, ekitaldiak...
• Erabilera anitzeko ekipamendua: liburutegia, ekitaldi-aretoa, adinekoentzako eguneko zentroa.
• Kultur arloko eraikuntza multifuntzionala.
• Euskaraz bizitzeko aukera izatea.



6. Prozesuaren emaitzak

14.

Beharrak, arazoak eta proposamenak

	BEHARRAK	AUKERAK
TOPOA	<ul style="list-style-type: none">• Topoa lurrazpiratzea• Azoka (erabilerak) beste nonbaitera eramatea	<ul style="list-style-type: none">• Topoa lurrazpiratzean aurreko zubia kendu eta toki librea izatea• Topoaren zubiak botatzea.• Topoa lurrazpiratzean, egungo ibilbidea peatonalizatzea.• Trenbidea eta geltokia bota.
AZOKA	<ul style="list-style-type: none">• Azokaren erabilerak beste nonbaitera eramatea	<ul style="list-style-type: none">• Eusko Jaurlaritzari eskatzea Azokako eraikina bota aurretik, berria eraikitzea (Igogailua alde batean egon dadila).• Azokan parte hartzen duten erakundeek eraikin berriaren diseinuan parte hartzea.



6. Prozesuaren emaitzak

15.

LUZURIAGA	<ul style="list-style-type: none">• Luzuriaga	<ul style="list-style-type: none">• Luzuriaga• Antxori dagokion zatian, adinekoentzako egoitza egitea
EKIPAMENDUAK	<ul style="list-style-type: none">• Ekipamendu-falta• Ekitaldiak egiteko lekua• Estalitako lekua• Administrazioarekiko harremana bideratzeko eta gestio orokorrak egiteko ekipamendua• Kirola egiteko tokia• Rokodromoa eginda dago, baina pobre gelditzen da.• Biteriko espazioak: haur-parkea, zaintzarako tokia...erdibidean dago; ez dago eginda.• Adin desberdinetako herritarrek aisialdiaz gozatzeko lekua• Anbulatorioa pendiente dago• Estalitako lekua• Ekitaldiak egiteko lekua	<ul style="list-style-type: none">• Ekitaldiak egiteko lekua Biterin?• Beharra bada, baina Biteri ez den nonbait ase.• Luzuriagako 2. fasean
BITERI	<ul style="list-style-type: none">• Espazio ireki eta zabala izatea, eraikinik gabea (ezta anbulatorioa ere).• Gune bigun eta atsegina izatea: belardiak, zuhaitzak, paseoan ibiltzeko...askoz gehiago egin behar da.• Erdigune izaten jarraitu	<ul style="list-style-type: none">• Eliza lekuz aldatzeko aukera aztertu• Topoko geltokia azokaren inguruan jarri.• Adin desberdinetako herritarrek aisialdiaz gozatzeko tokia eskaini behar du, behin behinean, bada.• Kirola egiteko tokia; egungo egoera mantendu eta egokitu• Elizaren eraikina birmoldatzea; eliza eta frontoiaren artean espazio librea utziz eta eraikinaren egitura errespetatuz.• Eliza berria egungo beharrei egokituta, LUZURIAGAKo 2. fasean egitea. Baina, bigarren erdigunea sor daiteke.



6. Prozesuaren emaitzak

16.

MERKATARITZA

- Udalak txikizkako merkataritza sustatzea
- Komertzioak irekitzeko
- Herrian bertan kontsumitzeko

- Komertzioak irekitzeko baldintzak administratibo eta urbanistikoak malgutzea; arau administratiboen interpretazioa malgutzea...

HERRI BIZITZA

- Herriko jarduerak sustatzea, baita haietan parte-hartzea ere.
- Herria erakargarriagoa egitea, herritarrek antolatzen diren ekitaldietan parte hartzeko edo ekitaldien antolakuntzan inplikatzeko



6. Prozesuaren emaitzak

17.

	ADOSTUTAKOAK	AUKERAK
TOPOA	<ul style="list-style-type: none">• Topoaren zubiak botatzea• Topoa lurrazpiratzean, egungo ibilbidea peatonalizatzea	
AZOKA	<ul style="list-style-type: none">• Azokaren erabilerak beste nonbaitera eramatea; eta Azokako erabilerak jartzeko dauden aukera edozein dela ere. AZOKA bota aurretik egokituta dagoela ziurtatu beharra dago.• Horrez gain, egun Azokan parte hartzen duten eragileek parte hartu beharko lukete eraikin berri/aukera berriaren diseinuan.• Azokaren orubean, ez ezer eraikitzea. Leku horretan edo inguruan, estalpea egitea eta egurrezko zubia azokaren parean.	<ul style="list-style-type: none">• Jarduerak LUZURIAGARA eramatea (egokitzapen-lanak ESTk eginda).• LUZURIAGA ETA ELIZA AZPIKO LOKALETARA eokituz egero (banaketa jarduera-motaren arabera eginez).• Eraikuntza berri bat egitea.
LUZURIAGA	<ul style="list-style-type: none">• Eguneko zentroa bertara eramatea.• Bertan zer egin denen artean adostea.	<ul style="list-style-type: none">• AZOKAKO jarduerak (denak edo batzuk) LUZURIAGARA eramatea (egokitzapen-lanak ESTk eginda).• Kultur aretoa bertan egitea
EKIPAMENDUAK	<ul style="list-style-type: none">• Ekitaldiak egiteko areto baten beharra (musika, antzerkia...). San Pedrokoa edo Niessenen antzekoa.	<ul style="list-style-type: none">• Ekitaldiak egiteko areto baten beharra (musika, antzerkia...). San Pedrokoa edo Niessenen antzekoa.
BITERI	<ul style="list-style-type: none">• Berez, denentzat egokia litzateke Biterin ezer ez eraikitzea, baina Azoka botaz gero, ESTk eraikin berria egin beharko lukeenez, Biterin egitearen aukera aprobetxatu beharko litzatekeela adierazi dute batzuek.	<ul style="list-style-type: none">• AZOKAren eraikin berria bertan egitea (Oribe etxean, kultur etxe parean...).• Biterin espazio librea uztea: frontoia utzi eta haur eta gazteentzako kirol anitzetarako espazioa egitea (eta Zumardia helduentzat)• Skate parkea egitea (Arrigorrikoen aholkuarekin).



6. Prozesuaren emaitzak

18.

MERKATARITZA	<ul style="list-style-type: none">• Udalak txikizkako merkataritza sustatzea• Komertzioak irekitzeko• Herrian bertan kontsumitzeko	
HERRI BIZITZA	<ul style="list-style-type: none">• Herriko jarduerak sustatzea, baita haietan parte-hartzea ere.• Herria erakargarriagoa egin, herritarrek antolatzen diren ekitaldietan parte hartzeko edo ekitaldien antolakuntzan inplikatzeko	
ANTXO ITSASOARI BEGIRA	<ul style="list-style-type: none">• RENFEren trenbideak lurrazpiratzea.• Motorak berreskuratzea.•	



Antxoren etorkizuneko aukeren inguruko azken gogoeta

TOPOA

Topoaren kasuan, denak ados daude lurrazpiratzearekin, zubiak botatzearekin eta peatonalizatzearekin.

AZOKA

Gogoeta luzea izan da Azokaren inguruan. Gaur egun AZOKAn egiten diren jarduerak Luzuriagara edo eta Eliza azpiko lokaletara eramatea planteatu da. Elizaren alde esan da, pribilegio bat litzatekeela herriaren erdigunean jarduerak egiteko aukera izatea; baina eraikina Udalarena den arren, gaur egun oraindik Elizaren esku dago. Horrez gain, ikusi beharko litzateke zer jarduera-mota egin litezkeen bertan.

Luzuriagaren kasuan, besteak beste, urruntasuna aipatu zen.

Beste batzuen iritziz, eraikin berria egiteko aukera aprobetxatu beharko litzateke; izan ere, AZOKA botaz gero, ESTk eraikin berria egiteko konpromisoa hartu beharko du eta horrelako aukera ezin daiteke alde batera utzi. Horri erantzun zaio, eraikin berria egiteko beharko litzatekeen dirua, LUZURIAGA edota ELIZAKO LOKALAK egokitzen erabil zitekeela.

Azkenean adostu zuten hiru aukera egon daitezkeela:

- Jarduerak LUZURIAGARA eramatea (egokitzapen-lanak ESTk eginda).
- LUZURIAGARA ETA ELIZA AZPIKO LOKALETARA egokitzuz gero (banaketa jarduera-motaren arabera eginez).
- Eraikin berri bat egitea (ez da adostu non).

Edozein modutara ere, azoka erabiltzen duten erakunde eta eragileek parte hartu beharko lukete eraikin berriaren edo besteen egokitzapenen diseinuetan.

BITERI/ZUMARDIA

AZOKAren ordezkotza eraikin berria eginez gero, BITERIn izateko aukera aipatu da (kultur etxearen parean...). Baina, esan bezala, puntu horretan ez da adostasunik izan; batzuentzat BITERik espazio irekia eta berdea izan beharko lukeelako eta beste batzuentzat, aldiz, geltokia kenduz gero, lekua egongo litzatekeelako eta horrelako jarduerak herriaren erdigunean egon beharko luketelako



6. Prozesuaren emaitzak

Espazio librea nahi dutenen iritziz, BITERIn haur eta gaztetxoentzako (≤ 14) kirol anitzetarako espazioa egin beharko litzateke, frontoia mantenduta. Skate parkea ere bai??? Arrigorrikoen aholkularitzarekin...

Biterin haur eta gaztetxoentzako kiroletarako lekua utzita, pertsona helduek, aldiz, Zumardia izango lukete egoteko eta paseorako.

LUZURIAGA

Luzuriagan espazio handia dago eta jarduera asko eraman litezke hara, Azokakoez aparte. Gainera, bertan jar liteke EGUNEKO ZENTROA. Luzuriagan zer egongo litzatekeen ere landu beharko litzateke.

GUNE ESTALIA

Ados daude denak Antxon kanpoko gune estali baten beharraren inguruan. Azoka kentzean, bertan egin liteke estalpea. Ahal dela, azokaren teilatua gordeta.

Erabilera anitzeko KULTUR ARETOA

Kultur areto baten beharra ere denek partekatzen duten beharra da. Gaur egun daudenek ez diote erantzuten dauden beharrei. Kultur etxeko aretoa ez da egokia hainbat ekintza, antzerki-saio, musika-emanaldi eskaintzeko, ezta erakusketarako ere. San Pedron dutena edo Erreterriako Niessen dira aipatutako ereduak. Gai honekin aukera batzuk atera dira:

- Aretoa Luzuriagan egitea eta Kultur etxeko aretoan liburutegia jartzea (eta erakusketak elizaren lokal parrokialetan jartzea).
- Liburutegi berria etxe berrietara eramatea eta kultur etxea areto bihurtzea.

ANTXO ITSASOARI BEGIRA

Prozesu osoan zehar adierazi zen, baita printzipioen artean jaso ere, Antxok itsasora irekitako herria izan behar duela. Antxo itsasoari begira jartzeko beharrarekin. Eta denak ados daude motorak berreskuratzeak horretan izango lukeen garrantziarekin. Gai horretan, Portuak eta RENFEren trenbideak dira oztopo nagusia. RENFEren ibilbideak 7 trenbide ditu, eta horietatik bi bakarrik erabiltzen dira. TOPOA bezala, horiek ere lurrazpiratuz gero, Antxo Itsasoari begira geratuko litzateke.



Epe luzerako proiektuen inguruan ere hitz egin zen, nahiz eta batzuen etorkizuna ez den oso argia.

LUZURIAGA 2. FASEA

Luzuriagako 2. Fasea noiz eraikiko den argi ez dagoen arren, Anbulatorioa eta jubilatuen etxea hara eramango direla ematen du. Hori gertatzean, AXULAR plazako jubilatuen lokala ere libre geratuko litzateke. Eta, ondorioz, lokal gehiago egongo liriteke jarduerak antolatzeke.

Etozkinerako beste gai batzuk ere aipatu ziren:

- Pavinsako etxabeetan garageak egiteko aukera.
- Pixkanaka Eliza lekuz aldatzearen gaia lantzen joatea; Elizaren erabiltzailekopurua ikusita, behar bada, alternatibak lantzen has liteke (Luzuriaga 2n Eliza txikiagoa egitea, benetako beharretara egokitua).

Eta oso gai zehatza den arren, honakoa ere jasotzea eskatu zuten:

- Frontoia egitean errekan zementu zatiak utzi zituzten eta horiek lehenbailehen kendu beharko liriteke.

Adostutako hurrengo urratsak:



Taldeak aurrera begirako urrats batzuk adostu zituen:

- Taldetik Segimendu Batzorde bat ateratzea etorkizunean prozesuaren segimendua egiteko.
- Herritarrei egindako lanaren eta emaitzen berri ematea.
- Maiatzaren 12ko Plenoan aztertzeke eskaera bat egitea;
 - hauteskunderen ondoren gure lana aurkezteko aukera bermatzeko
 - aurrerantzean, prozesuari segimendua egiteko baldintzak eta baliabideak ziurtatzeko¹ (ikus eskaera eranskinetan).

¹ Eskaera maiatzaren 12ko Plenoan aurkeztu zen eta onartu egin zen.



6. Prozesuaren emaitzak





Saioetako asistentzia

⇒ Asistentzia apala izan zen, guztira 27 lagunek parte hartu bazuten ere, bilerako batez beste 13 lagun ingurukoa izan zen. Lehenengo saioan 12, bigarreanean 20 eta azken saioan 8.

⇒ Aipagarria eta penagarria, gainera, azken saioko parte hartzea oso txikia izan zela, 8 lagun. Are penagarriagoa kontuan izanda, batetik, hainbat proiekturen inguruko proposamenak adosteko unea zela, eta, bestetik, aurrera begirako urratsak definitzeko eta segimendua egiteko egituren ingurukoak erabaki zirela. Parte hartze handiagoak prozesuari legitimitate handiagoa eta etorkizuneko egitura sendoagoa lortuko litzatekeela.

Horrenbestez, asistentziaren balorazioa gazi-gozoa izan da.

Bileretako parte hartzea

⇒ Herritarrek bileretan izan zuten parte-hartzeari dagokionez, balorazioa ona da; saioetan gehienek modu aktiboan parte hartu baitute. Eta zoriontzekoa, gainera, azken saioan adierazitakoaren arabera, prozesuaren segimendua egiteko prest egotea. Eta **komeniko litzateke prestutasun hori lehenbailehen artikulatzea.**

⇒ Atal honetan ere adierazi nahi dugu, parte-hartzea txikia izan bada ere, nahiko anitza izan dela, herritarren interesei eta, erakunde edo elkarteren batetik zetozenen kasuan, zetozen erakunde edo elkarte-motei dagokienez.

Gizonezkoen eta emakumezkoen parte-hartzea

⇒ Asistentzia **ez zen orekatua** izan; izan ere 9 emakumezko eta 18 gizonezko parte hartu zuten. Azken saioan, gainera, 8tik bakarra zen emakumea.

Parte-hartzaileen adina

⇒ Parte hartu zutenen batez besteko adina, 48 urte da. Jende gehien izan den adin-tartea, 56-65 izan da, % 37. Gazte gutxik parte hartu dute; dena dela, parte-hartzea nahiko orekatua izan da adin-tarteak kontuan izanda.

Komunikazioa eta informazioa

⇒ Komunikazioaren atalean, panelen erakusketa positiboa izan zen; bisuala eta argia. Bestalde, herritarrek eskertu zuten bileretan emandako informazioa eta hurbiltasuna, baita zalantzak argitzeko izandako aukera ere. Hala ere, kostatzen zitzaigun hainbat komunikazio-ekintza gauzatzea (erakusketa prestatzea, prentsaurrekoa...).



Lekua

⇒ Aretoaren akustika ez zen egokia lan egiteko, batez ere taldeka lan egiteko. Bigarren bileran sortu zen arazoa. Hirugarren saiorako taldeka lan egiteko gela batzuk prestatu genituen, baina hirugarren saioan jende gutxi parte hartu zuenez, talde bakarrean egin zen lan eta prestatutako konponbideak ez ziren behar izan.

Giroa

⇒ Bilerak giro onean izan ziren, eta parte hartzeko eta iritzia emateko aukera izan zurten parte-hartzaileek. Parte-hartzaileak sintonia onean aritu ziren eta adostasuna erraz lortu zen eta ez zen izan eztabaida handirik.

Prozesuaren eta emaitzen ondorio orokorrak

Prozesuaren hasieran jarritako helburuei erreparatuz, helburu orokorra, maila handi batean bete dela esan dezakegu, Antxoko bizilagunek barrutia nola berrantolatu landu dutelako. Helburu zehatzak ere bete dira, zenbait proiekturen definizio faltaren ondorioz bideragarritasun azterketak kenduta.

Baina, nahiz eta Udalak egin beharrekoak egin dituen eta **parte-hartzea maila kualitatiboan ona** izan den arren, **ez da lortu herritarren parte hartze kuantitatiboa nahi adinakoa izatea**. Ez da lortu herritar-kopuru adierazgarri bat subjektu aktibo bihurtzea eta herritarrak oro har, parte hartzearen kultura murgiltzea. Eta horrek egindako lanari zilegitasunik kentzen ez badio ere, egindako lanak eta landutako proposamenek herritarren babesa beharko lukete. Eta horixe izan zen, hain justu ere, parte-hartzaileek adierazitakoa: egindako lana herritarrei aurkeztu beharra, haien ekarpen eta babesa lortzeko eta segimendua egingo duen taldea osatzeko.

Izan ere, proiektu berriek jokaleku eta aukera berriak zabalitzen dizkie Antxoko bizilagunei, baina horietako proiektu batzuk oraindik erabat zehaztu gabe, epe luzerakoak edo herritarron (ezta Udalaren) esku ez daudenez, aurrerantzean herritarrek haien inguruko berri izan dezaten eta erabakien segimendua egiteko bideak eta urratsak ondo zehaztu beharra dago.



“Antxo eraikiz” herritarren taldeak udalari egindako eskaera

UDALARI ESKAERA

Pasaiako Udalak hainbat ahalegin egin ditu **herria hobetu nahian**, eta horretarako antxotarren iritziak eta iradokizunak jaso ditu. Baina horiek asetzeko eta gauzatzeko hainbat muga izan ditu Antxok.

Orain, ordea, aukera berriak zabaldu dira (*topoa* lurrazpiratzeko proiektua, Luzuriaga herriratzea...). Aukera horiek ikusita, Udalak parte hartzeko prozesu bat ireki zuen martxoan herritarrek horien inguruko gogoeta egin zezaten.

Hiru bilera egin ditugu herritarrek eszenategi berriaren inguruan eztabaidatu eta proposamen berriak egiteko. Prozesua amaituta, emaitzak eta ondorioak aurkeztu nahiko genizkioke Udalari. Baina ohartzen gara legegintzaldi bukaera dela eta ez dela unerik egokiena gure lana aurkezteko, batez ere ordezkari politiko batzuek utzi egingo dutelako eta udal-talde berriak sortuko direlako. Horrez gain, prozesuan ateratako proposamenak, maila handi batean, herritarren esku ez dauden zenbait aldagaien menpe daude. Izan ere, zabaldu zaizkigun aukera horietako batzuk oraindik erabat zehaztu gabe daude, alegazioen baten zain daude edo epe luzerako proiektu edo negoziazioen ondorio lirateke.

Horregatik guztiagatik, honako eskaera hauek egin nahi dizkiogu Udalari:

- Udalak konpromisoa hartzea prozesuaren emaitzak hurrengo legegintzaldiaren hasieran Korporazio berriari aurkezteko, hau da, aukera hori bermatuko dela hitza ematea.
- Etorkizunean Udalak kontuan izatea orain arte Antxon landutakoa, eta hainbat proposamen oraindik erabat definitzeko dauden proiektuen menpe daudenez, horien segimendua herritarren ordezkari baten bidez egingo dela ziurtatzea eta horretarako baldintzak eta baliabideak jartzea



7. Eranskinak